



# RABADA-NAVARRO

## Ordessa klasiko bat



**H**istorio hau 1996 urteko azaroan hasi zela esan daiteke. Klasiko hau eskalatzeko asmoarekin hurbildu ginen Ordesara, baita pareta azpira ere, baina hotz ikaragarria egiten zuenez buelta erdia eman eta beste aukera baterako uztea erabaki genuen.

1997 urteko abuztuaren 12a, arratsaldeko 5ak inguru, zeruan laino bakarren bat eta Ordesako aparkalekuan jende eta kotxe ugari. Hemen gaude zelaian etzanda Iker eta biok ea giroa zertxobait freskatzeko den gorantz hasteko.

Gorputzak dionari batere kasurik egin gabe oinez hasten gera Cotatuero-ko giltzetara doan basotik barrena. Animalia basati bat banintz baso hontan bizitzeko gustatuko litzaidakeela pentsatzen dut etengabe, ibiltzen noan bitartean. Inoiz ikusi dudak basorik ederrinak da dudarik gabe. Aparkalekutik hasi eta ia ordu terdi behar izan dugu Gallinero-ko paretaren azpian dagoen bibak-era heltzeko. Bizkarrean daramagun zama ez da nolana hikoia. Bertan "afaldu", irratia piztu eta kartetan eguneroko partidatxo botako dugu, "a la escoba" nola ez. Gaurkoan ere Ikerrek ez du suete haundirik izan (horrela dio berak) eta biharko fregaua berak egingo du, nik aldiz eskoban jokatzen hobe naizela uste dut.

Gaueko 9ak dira eta sakuan sartzeko irrikitan nago. Meteoritoen gaua atzo izanenez gaur lasai asko lo egingo dugu gora begira egon gabe, gainera lainoek zerua estaltzen dute onezkerok. Baina trankil, biharko eguraldi ona iragarrita dago.

### ■ zorionak zuri

Goizean goiz eguzkiarekin batera jaiki, Ikerri "zorionak zuri, txupatusak neri" kantatu (bere urtebetetzea bait da), cola-cao bat edan eta zazpi terdiatarako paretan eskalatzeko hasiak gaude. Luze bat gorantz eta beste luze bat trabesian tartekatuz bideko luze politenaren azpian aurkitzen gera, zapai luzearen azpian. Ez da elkargune konfortagarriena baina tira, txarragoak ere badaude. Momentu batez beherantz begiratu 3 gazte "Geminis" bideari ekin diotela konturatzen

gera, baina berehala gure lanari jarraitzen diogu.

Krokisean A2 dioenez material guztia arnesean zintzilikatzen dugu eta estriboen laguntzaz zailtasun haundirik gabe gainditzen dugu luze hau. Egia esanda, bertan dagoen giltza mordoarekin burdindegi bat zabaldu daiteke, baina bueno, dagoenean aprobeztatu egin behar da. Bertan eta ezkerretara begiratu "Zartrustra" bidearen zapai ikaragarria ikusten da. Hori beste urte baterako behar bada.

Orain pareta erdian dagoen zelaira goaz. Terrenu erreza baina trabesian egitekoa. Despistetxo bat eduki dugu eta luze bat destrepatu eta errepikatzea tokatu zaigu. Midi de Ossaun bezala, gaur ere galdu egin ahal gera? Ba ez, korapiloz beteta dagoen kordinotxo bat jarraitu eta bide egokian goazela konturatzen gero

### ■ "honek katalanak dira"

Onezkerok zelaian gaude eta bertan "Geminis" bideari ekin dion batek dio beste bati: "tira de la bermella", eta guk: "honek katalanak dira". Ur trago bat edan, sokak sorbaldean bildu, katu oinak askatu eta zelai hontan kurba luze bat egin eta gero azkeneko tximniaren azpian gaude. 4 luze besterik ez zaizkigu falta eta goitik irtetzeko gogoz gaude biok. Lehengo 2 luzeak motzak baina gaitzagoak eta azkeneko biak luzeagoak baina errezagoak egin eta hor agertzen gera biok Ikerrek dioen bezala, "por arriba y con la cabeza bien alta".


Goian derrigorrezko argazkiak atera eta Cotatuero-ko giltzetarantz abiatzen gera. Erreka ondotik pasatzen ur trago bat edateari ezin diogu ezetz esan. Oraingoan gorputzak dionari kasu egin diogu. Beste argazki pare bat eta lo egin dugun bibak-era goaz zuzenean bertan utzitako trasteak hartzera. Berrito ere motxila egin eta eskerrak atzo aldapa gora izan zena gaur aldapa beheara dela.

Aparkalekura heldu baino pixkat lehenago gogoratzen dut Ikerren furgoneta Torlan utzi genuela eta oraindik joanalditxo bat gelditzen zaigula. Ea ezagunen bat ikusten dugun eta Torlara eramaten gaituen. Ez dira 5 minutu pasatzen eta han agertzen dira herriko ezagun batzuk. Haiek 3 eta guk 2, kotxean trasteak gainezka daudela han goaz berriketa batean bakoitzak bere abenturak kontatuz. □






- 1 "El Gallinero"ren ikuspegi bat
- 2 Zapai handiaren azpian (A2)
- 3 Iker, askotariko tximini batetan
- 4 Elkargunera hurbiltzen
- 5 Ion, travesia motz batetan



AIGAZIAK: IKER ETXEARRIA ETA ION BERASATEGI



### FITXA TEKNIKOA

- Gallineroko Rabadá-Navarro bidea (450m, 6b/A2)
- V gradutik gorako pasu guztiak A<sup>o</sup>an egin daitezke
- Ordu-tegia: lehen aldiz egin ezker 7 ordu
- Materiala: 9mm tako 2 soka, frien jokoak, fisurero jokoak, 15 expres, zintajoak eta estriboak.

## RABADÁ-NAVARRO

**S**IEMPRE hemos sentido admiración por estos dos escaladores aragoneses. Por eso, considerábamos que ya era hora de escalar alguna de sus tantas vías, y qué mejor paraje para hacerlo que Ordesa.

Situada en la pared sureste del Gallinero y con la Fraucata en frente, la vía Rabada-Navarro es una ruta obligada para todo aquel que disfrute escalando vías clásicas sin excesiva dificultad y de una longitud media.

A pesar de ser un paraje tan frecuentado, escalar en Ordesa hace que te sientas aislado, incluso en agosto.

Actividad realizada el 13 de agosto de 1997 por Iker Etxebarria y Ion Berasategi. □